

bai aldizkaria

Bai Euskarari Elkarareen aldizkaria | 37 zk | 2023ko ekaina



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

Joxemari Telleria
Garaikurraren atzeko artista
#BaiEuskarariSariak2023

Rober Gutiérrez
[Zuzendaria]
@robergutierrez



Aldeko haizea

Euskararen erabilera areagotzeko lan handia egiten ari diren hiru entitatek jasoko dute aurtengo Bai Euskarari saria. Askotan haizea kontra izanda ere, beldurrik gabe eta ausardiaz, beraien egunerokoan euskara txertatzen ari diren hiru erakundek, inguruan eragiten dutenek, kontra egon litekeen haizea, aldeko haize bihurtzeraino.

Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzen dutenek apustu bat egiten dute; haien lanaren bidez, haratago joatea erabaki dute, euskaraz lan egin eta eroso bizi ahal izateko. Urtez urte urratsak egitera engaiatzen dira, euskarari espazio berriak irekitzeko gogoarekin, eta beharbada ohituraz erdaldunagoak diren eremuetan euskarari merezi duen tokia ere ematen diote, adorez.

Eraldaketa sakona bizi dugu gizarte mailan, eta horren aurrean euskaraz aritzeari eta euskarari tokia bermatzeari eta zabaltzeari garrantzia ematen dioten entitateak saritu nahi ditugu aurtengo. Globalizazioaren aurrean tokikoari balioa ematearen eta hori zaintzearen alde kementsu egin dutenak, digitalizazioaren esparruan euskarari merezi duen tokia emateko gogoa erakutsi dutenak, egunerokoan atzerriko hizkuntzen eta anglizismoen erabilera masiboaren aurrean, euskararekin jolastuz hizkuntzari ikusgarritasuna eman diotenak...

Auzolana lanabes duen ekimen herri-tarra da Errigora. Nafarroako hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez

den ingurunean eragin nahi du, eremu horretan berezkoak diren elikagaiei Euskal Herri osoan bidea emanaz. Herriak herriari egindako sekulako oparia da, euskaratik, euskararako eta euskaraz.

Hupi adimen artifizialean espezializatutako enpresa da, Bidarten eta Donostian egoitza bana duena. Lurraldea saretzen saiatzen dira eta euskara da horretarako tresna.

Sorland komunikazio agentziak marken eragina handitzen edo hobetzen laguntzen du. Eragin dute eta argi dute produktu edo marka bati ikusgarritasuna emateko ezinbestekoa dela euskara baliatzea. Erosle potentzialari berea den hizkuntzan hitz egiten bazaio, emaitzak askoz hobeak izaten dira.

Gu guztion aintzatespena merezi dute, hiru sarituek ez ezik, Bai Euskarari komunitateko gainerako enpresek ere, euskaraz eroso aritzeko aukera errazten ari baitira. Inbertsio handia egiten ari gara, gizarte bezala, gure gazteak euskaraz formatzeko... Belaunaldi aldaketa dator, baina gehien-gehienak erdaraz ari dira lanean eta komeni da enpresak, administrazioak eta beste-lako erakundeak ere beste modu batez erantzutea gizarte-erronka honi.

Ausardia baliatu, kontrako haizea aldeko bihurtu, eta euskaraz eroso aritzeko aukera bermatzeko ekarpena egiten duten horien eredia inspiratzailea izan dadila abentura honetan parte hartuko duten gainerako enpresentzat.

Bai Euskarari Sariak 2023

Romain Roquefère 4

HUPIko zuzendaria eta sortzailea

Irati Rodríguez

HUPIko negozio garapeneko arduraduna

Ibai Sueskun 6

ERRIGORA elkarteko ordezkaria

Gorka Barruetabeña 9

SORLANDeko zuzendaria

Joxemari Telleria Lezeta 12

Margolaria eta ilustratzailea

Komunitatearen txokoa 14

- Udalbiltzak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu du

- 23 entitate berri

- Enpresarean Foroa

- Ziurtagiriaren inguruko ohiko galderak

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkartea
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain

t. +34 943592148

38 Cordeliers karrika - 64100, Baiona
t. +33 603494365

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo

Rogelia de Alvaro Elkarteen Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina,
13. bulegoa 31014 Iruñea

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkartea eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak: Bai Euskarari Elkartea, Arteman Komunikazioa, Hupi, Errigora eta Sorland.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak


Banaketa: Bai Euskarari Elkartea

Lege gordailua: SS-497-2010



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus



ROMAIN ROQUEFÈRE

HUPIKO ZUZENDARIA ETA SORTZAILEA,
VINCENT MORENOREKIN BATERA

IRATI RODRIGUEZ

NEGOZIO GARAPENEN ARDURADUNA

Adimen artifizialean espezializatutako enpresa da Hupi. Bidarten jaio zen 2013an, eta 2018tik Donostian ere badute ordezkaritza. 14 lagunek egiten dute lan bertan gaur egun eta Euskal Herri osoko enpresak dituzte bezero. 2021ean eskuratu zuten Bai Euskarari Ziurtagiria eta Bai Euskarari Saria jaso dute aurten.



“Lurraldea saretzen saiatzen gara eta euskara da horretarako bidea”

Bai Euskarari Saria jasoko duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

RODRIGUEZ: Urte hauetan guztietan egindako lanaren errekonozimendua izan da. Ipar Euskal Herrian ez da hain erraza euskararen aldeko horrelako apustua egitea eta gu gauden teknologia munduan, zailagoa. Baina hasieratik gure DNAREN parte izan da eta nolabaiteko apustua izan da enpresaren aldetik. Guretzat erreferente izan dira Bai Euskarari Elkar-tea eta komunitatea; ohore bat da aurreko urteetan saria jaso dutenen ondoan egotea.

ROQUEFÈRE: Egia esan, ez da erraza lana eta euskara ikastea bateragarri egitea eta sari honek aurrera jarraitzeko motibazioa ematen digu. Enpresa txikia gara eta, umiltasunez, erakutsi nahi dugu posible dela jar-

duera ekonomikoari eustea, euskara ikastea eta baliatzea. Ikusi dugu, gure ereduari jarraituz, Ipar Euskal Herriko beste enpresa batzuk ere hasi direla prestakuntza jasotzen.

Zein urrats eman dituzue euskararen alde?

ROQUEFÈRE: Hupin euskaraz lan egin eta bizi nahi dugu. Euskaldun batzuk baditugu enpresan eta gainerakook astero euskara eskolak hartzen ditugu AEK-rekin. Lankide berriak hartzen ditugunean saiatzen gara haiek ere eskolak har ditzaten. Enpresan ere saiatzen gara egunerokoan euskara baliatzen: mezuak idazten, bezeroekin mintzatzen, aurkezpenetan euskara sartzen... Horrez gain, euskararen inguruko ekitaldi anitzetan parte hartzen dugu: Korrrika, Euskaraldia, Herri Urrats...

RODRIGUEZ: Hupi ez da enpresa bat bakarrik, lurraldea eraldatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko ibilgailua ere bada. Eta lurraldean eragiteko tresna da euskara. Euskara sustatzeaz gain, bestelako ekitaldiak eta proiektuak ere babesten ditugu: Ikusi Mikusi ekitaldia, Pastoralak, Euskoa erabiltzen dugu, Enargiako bazkide gara... Lurraldea saretzen saiatzen gara eta euskara da horretarako bidea.

Zer egiten duzue Hupin? Zer eskaintzen diezue enpresa zein erakunde ezberdinei?

ROQUEFÈRE: Adimen artifizialean espezializatutako enpresa gara eta irtenbide digitalak sortzen ditugu gure bezeroentzat. Bi egoitza ditugu, Bidarten eta Donostian, eta guztira 14 pertsona ari gara lanean. Euskal He-

rri osoko enpresentzat egiten dugu lan: Safran Helicopter Engines, Suez, Mondragon taldea edo Gestamp, besteak beste.

RODRIGUEZ: Adimen artifizialean eta sistema ziberfisikoetan espezializatutako enpresa gara eta gure irtenbide digital horiek laguntzaile birtualak dira: enpresa baten operatzaile edo langileari gomendioak modu automatikoan eta denbora errealean emateko tresna bat. Gure helburua beti da erabakiak hartze-ko prozesu hori erraztea. *Business intelligence*-k datuen historiko bat bistaritzen du, pasa dena ulertzeko beharrezkoa da. Guk, adimen artifizialaren bidez, etorkizunerako balioko diguten erabaki horiek hartzen laguntzen dugu. Beharrezkoa da iragana ulertzea, baina pauso bat aurrerago eman eta forma erreaktibo batetik proaktibo batera pasatzen gara.

Nola aldatu da adimen artifiziala azken urte eta hilabete hauetan?

RODRIGUEZ: Orain denon ahotan dago adimen artifiziala eta egia da onurak ekarri dizkigula, nolabait denok ulertzen baitugu zer den adimen artifiziala eta zertarako balio duen. Beste alde batetik, badago nolabaiteko ikuspegi katastrofista bat: azterketetan kopiatzeko dela, lana kenduko digula... Uste dugu adimen artifiziala egunerokoa errazteko beste tresna bat dela.

Gure baloreekin jarraituz, garrantzitsua da adimen artifiziala ere de-

mokratizatzea. Orain arte enpresa eta erakunde handiak baliatzen ziren teknologia honetaz, poliki-poliki ari gara enpresa txikiei ere ikusarazten tresna hau erabili dezaketela.

ROQUEFÈRE: Enpresa batzuek adimen artifiziala zientzia fikzioa balitz bezala ikusten dute eta amets egiten dute, baina gero askok desengainua hartzen dute emaitzekin. Helburua ez da altuegia izan behar. Guk sei hilabetez hobetuko dugu maila, arazoak murriztuko ditugu pixka bat; sekula ez ditugu ametsak saltzen.

Zein dira zehazki zuen soluzioak?

RODRIGUEZ: Orain arte industria-
ren arloan oinarritu gara asko eta hor hainbat modulu sortu ditugu. Ez dugu produktu finko bat, enpresaren beharretara egokitzen saiatzen gara: ekoizpen lerroan plangintza optimizatua egin, mantentze lan prediktiboak, makina baten konfigurazioan lagundu parametro dinamikoak egiten... Mugikortasunaren arloan ere lan egiten dugu eskaria aurreikusten, garraioaren kudeaketa optimizatzeko. Energia arloan ere lan egiten dugu, energia eskaria eta eskaintza parekatuz. Uraren inguruan ere egiten ditugu lanak, ur sareak monitorizatzeko eta ur jarioak aurreikusteko, adibidez.

ROQUEFÈRE: Adimen artifiziala gure mundua aldatzen ari da, baina gure erabakia da nola aldatuko duen zehaztea. Garrantzia handia ematen diogu horri. Guk sortzen ditugun laguntzaile birtualak pertsonak

laguntzeko dira, eta ez pertsonak ordezkatzeko. Bestetik, gure jakintza erabili nahi dugu tokiko enpresei laguntzeko: Euskal Moneta, Enargia, Herrikoa... Adimen artifizialarekin militantzia egiten dugu Ipar Euskal Herriko proiektu ezberdinak bultzatzeko.

Datuen pribatutasunaren inguruan ere izaten dira zalantzak. Kontu horretan zein neurri hartzen dituzue?

RODRIGUEZ: Guretzat oso garrantzitsua da datuen pribatutasuna. Bezeroaren datuak bezeroarenak dira, ez dira gure datuak. Datu horiek hartu, prozesatu, erabili eta bueltatu egiten ditugu. Datu horietan oinarritutako aplikazio bat sortuko dugu soilik.

Data center lokal bat dugu, Izarlink deitzen dena, Bidarten dago gure bulegoaren azpian.

Enpresen *know-how* edo egiteko modua datu horietan egoten da eta oso mesfidati izaten dira askotan ea zeinekin konpartitu behar ditugun.

Oso presente duzuen zerbait mugaz gaindiko harremanak dira. Nola bizi duzue errealitate hori?

ROQUEFÈRE: Oso erraza da mu-

“Hupi ez da enpresa bat bakarrik, lurraldea eraldatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko ibilgailua ere bada”

50
urte

kulturgintzan,
herrigintzan



ekar
fundazioa



garen bi aldeetan lan egitea. Guri errazagoa egiten zaigu Hego Euskal Herrira joatea Bordelera edo Frantziako Tolosara baino.

RODRIGUEZ: Romainek badu esaldi bat: Biriaturiko muga ordaindu behar den bidesari bat besterik ez da, Donostiatik Bilbora joatea bezala. Bi aldeetan hartueman handiak daude eta oso emankorrak dira.

Zuen ustez, zergatik baliatu behar dute enpresek euskara?

RODRIGUEZ: Euskara gure hizkuntza da eta gure lurraldea bereizten du. Erakutsi nahi dugu sektore guztietan euskara berdin-berdin erabil daitekeela. Egia da hitz tekniko

asko ingelesez egongo direla eta programazio aldetik ez dela berdina izango, baina gero komunikazio arloan eta pertsonekin gaudenean, euskara da gure hizkuntza komuna.

Zein erronka dituzue etorkizunera begira?

ROQUEFÈRE: Hupi handitzen ari da eta autofinantzatuak garenez, gure erronka da pentsatzea nola jarraitu behar dugun hazten. Horretarako, gobernantza aldatzen ari gara. Vincent Moreno eta biok gara orain enpresako bazkide eta erabaki dugu aurten lankide gehiago bilakatzea enpresaren jabe. Gure ametsa da jabe diren lankideek ere gure balo-

reak parteka ditzatela. Urrats handia da gure buruan eta ez dugu sekula salduko gure enpresa, baina transmisioa behar dugu. Hupik gure herrian egon behar du, gure baloreekin.

RODRIGUEZ: Ikuspegi bertikala aldatu eta horizontaltasuna sustatu nahi dugu. Hupi gure lurraldean eragiteko tresna da eta ez dugu hori galdu nahi.

“Adimen artifiziala gure mundua aldatzen ari da, baina gure erabakia da nola aldatuko duen zehaztea”

#BaiPraktikaEgokia

**Euskaraz lan egiteko
20 jarraibide**



baleuskarari.eus

IBAI SUESKUN ERRIGORA ELKARTEKO ORDEZKARIA

“Herriak herriari egindako sekulako oparia da”

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroako hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretako elikagaiei Euskal Herrian bidea emanez, euskaratik, euskararako eta euskaraz. Bai Euskarari komunitateko kide da eta Bai Euskarari Saria jaso du aurten.



Bai Euskarari Saria jaso duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Pozgarria den berri bat da. Sari bat jasotzea beti da polita eta kasu honetan garrantzitsua da Errigorak euskarari egiten dion ekarpenagatik. Historikoki oso diskriminatua egon izan da euskara gure zonaldean. Nahiz eta futbol zelaia lokatzez beteta egon, bada-kigu bertan jokatzeko, jendearen taupada hori entzuten eta poliki-poliki gauzak egiten. Gauza bat da administrazioari exigitu ahal dion guztiak, eta beste bat da gure esku dagoena. Aldatzeko aukera dago, eguneroko jarrerari eta lanari esker. Eta, batez ere, irakurtzen jakin behar dugu zein den egungo errealitatea eta praktika ezberdinak egin hankak lurrean izanda.

Nola joan dira Errigoraren azken kanpainak?

Udazkenean egin genuen *Euskarari puzka* kanpaina eta nahiko ondo joan zen. 13.000 saski inguru banatu ziren eta berriro ere euskalgintzari ekarpena egiteko balio izan zuen: Sortzenek D ereduak bultzatzeko, ikastolek euren beharrezan erant-



tzuteko eta AEK-k beka sistemari eusteko. Bestalde, Agerraldiak ere proiektu ezberdinak garatzeko finantzazioa lortu du. Herriak herriari egindako sekulako oparia da.

Bigarren kanpaina, *Eskutik eskura*, antzera joan da. Pasa den urte-tik hona gora egin du kontserben salmentak eta olioarena jaitsi da apur bat. Dena dela, iazkoa ezohiko egoera izan zen, Ukrainako gerrak olioaren sukarra piztu baitzuen eta sekulako eskaera egon baitzen; aurt-en ohiko kopuruetara itzuli gara.

Oso pozik gaude. Elikadura buruja-

betzaren bidean urratsak ematen jarraitzen dugu. Era berean, oinarri batzuk finkatuta daudela berresten dugu eta poliki-poliki eskaintza ezberdinak ari gara martxan jartzen. Euskal Herri luze-zabalean ari gara banaketa egiten hainbat gune eta espaziotan.

Zein lan-ildo dituzue martxan euskara bultzatzeko?

Lehenengo ildoak kanpainena da, *Euskarari puzka* eta *Eskutik eskura*.

Bigarrena jantokietakoa da: enpresa, ikastetxe eta haurreskola ezberdinekin elkarlanean ari gara beraien jantokiak Nafarroa hegoaldeko produktuekin hornitzeko. Zergatik kontsumituko dugu kanpo-tik ekarritako tomate saltsa bat he-men bertan baldin badugu? Beste hainbeste arrozarekin, pastarekin edo piperrekin.

Agerraldia da hirugarren ildoak eta hor proiektu txiki pila bat sortzen ari dira. Zonalde horretan euskarari bultzada emateko beharrezko sub-jetu bihurtzen ari da.

Laugarren ildoak identifikatzailare-na da. Bere bidez, Errigorako pro-dukтуak balore batzuk transmititzen ari direla ziurtatu nahi dugu: auzola-



na, euskara, bidezko harremana eta bertakotasuna. Identifikatzailearekin sekulako urratsa eman dugu. Ekoizleak proiektuarekiko koherentziaz eta kohesioz aritzea nahi dugu. Jarraipenerako mekanismo batzuk jarri ditugu eta ekoizleak beraiek dira autoebaluazioak egiten dituztenak.

Bestalde, ekoizpenaren eremuan zenbait azterketa egiten ari gara eskaintzak egokitu ahal izateko. Pasa den urtean, adibidez, arbendolak eskaini genituen.

Iaz, sute handiak izan ziren Nafarroako hegoaldean eta kezkaz bizi izan genuen egoera hori. Berez ez zen gure eremua, baina ikusi genuen lurrak ari zirela erretzen, mendiak... Momentuko erantzuna eman nahi izan genuen. Ondorioztatu genuen beste eredu bat behar dugula eta

zonaldea eragingune dugula, baina erretzen bada ez duela ezertarako balio. Hala, gure eremua ez izan arren, hausnarketa bat egiten hasi ginen eta gure ustez ezinbestekoak ziren sektoreetako ordezkarien mahai bat osatu genuen: ekologikoan dabiltzan Nafarroako ekoizleekin, suhiltzaileekin, basozainekin, Errigorako ekoizleekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin. Haiekin batera erabaki genuen diru-bilketa bat egitea. Administrazioak momentu horretan egin ez zuena herriak egin zuen. Mahai gainean jarri nahi genuen eredu honekin ez goazela inora eta aldatu behar dugula. Herriguneak babestea eta abeltzantza extensiboa zabaltzea izan ziren diru-bilketaren irizpideak. Irizpideak zehaztu ondoren, eraba-

ki genuen zein herritan garatu ahal genuen proiektua. 80.000 euro inguru batu genituen eta Donamartiri Untz eta Uxuera bideratu genituen. Eratzun berdea egiteko eta etorkizunean beharrezkoak diren mekanismoak martxan jartzeko lanean hasita daude dagoeneko Uxuen eta Donamartirin; Untzen ere hastear daude.

Zuen helburuetako bat da Nafarroan euskarari bultzada ematea. Baduzue urte hauetan eragin duzuenari buruzko daturik?

Euskarari puzka kanpainarekin ekonomikoki euskalgintza laguntzen genuen, baina hortik harago ikusten genuen beste zerbait behar zuela euskarak Nafarroako hegoaldean zein erdialdean zabaltzeko. Euskal-

**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

dundu ondoren, gure hurrek edo helduek zein aukera dute euskaraz bizitzeko? Galdera horretatik abiatuta, ikusi genuen zutabe ezberdinak jarri behar genituela: ezagutza eta erabilera bermatzeko espazioak. Ezagutzaren eremuan lanean ari dira Sortzen, ikastolak, euskaltegiak eta abar, baina eremu sozioekonomikoan eta aisialdian eragiteko beharra ikusi genuen. Horregatik sortu genuen *Agerraldia*. Eskualde edo herri bakoitzak erabakitzen du zer egin eta nola egin eta proiektu anitzak eta erakargarriak abiatu dira: Union Tuter, Lasterketak euskaraz, Jolas-teka, Gurasoteka, Euskara Planak 25 enpresatan... Jolasteketan, adibidez, 300dik gora ume daude izena emanda. Hazia jarritz, bagoaz aurrera.

Zuen komunitatea ere haziz doa, ezta? Zenbat ekoizle eta kontsumitzaile dituzue?

Oraintxe bertan 25 ekoizle daude. Egon da hazkunderako une bat, baina momentu honetan dugunari eutsi eta benetan Errigorako balioak martxan jarri nahi ditugu: euskara planak sustatu, bertakotasunean eragin, ebaluaketa sistemak jarri... Errigoraren baitan kohesio hori egoitea nahi genuen. Eskakizunak igo ditugu eta Errigoran sartu nahi duen edozein ekoizlek baldintza horiek bete beharko ditu. 2024an datozen lau urteerako plan estrategikoa burutuko dugu eta orduan erabakiko dugu nola jarraitu.



Bolondresen lana ere oso aipagarria da zuen proiektuan, ezta?

300 bat herritara iristen gara eta bakoitzean bolondresak daude. Errigoraren barnean ekarpena egiteko modu asko daude eta bolondresak bozgorailu dira gure herri eta auzoetan. Guretzat ezinbestekoa da lan hori; tresnak ematen dizkiegu, baina gero beraiek dira benetan herria egiten dutenak. Gure altxor preziatuenetakoa dira.

Lehortearekin ere kezkatuta egongo zaretela pentsatzen dut. Nola eragin dezake zuen proiektuan?

Krisi ekosozialarekin lotuta dago. Aldaketa klimatikoaren bueltan arazoak sor daitezke, bereziki zekaleekin, lekaleekin, eta ari gara dagoeneko arazoak izaten. Kanpotik ekarri ahal ditugu, baina hori ez da Errigoraren filosofia. Gure aurreikuspenak egiten eta arazoei aurre hartzen saiatzen ari gara. Honek epe erdi-

luzeko soluzioa dauka. Bestelako politika publikoak egin behar dira eta guk geuk ere kontzientzia hartu eta jarrera aldatu behar dugu gaur egungo klimari begira. Gure prebisioa da geroz eta arazo handiagoak izango ditugula.

Aurrera begira, beste proiekturik baduzue?

Datorren udazkenean Errigoraren 10. urteurrena ospatuko da eta taimainan erantzungo diogu urtemuga horri. Komunitate guztia aktibatu nahi dugu eta sorpresatxoak etorriko dira.

“Eremu sozioekonomikoan eta aisialdian, egunerokotasuneko zutabe ezberdinetan, eragin behar zela ikusi genuen”

lansarean



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

**EUSKARAZKO
LAN-ATARIA**
LAN BILA ZABILTZA?
LANA ESKAINTZEN DUZU?

lansarean.eus



GORKA BARRUETABEÑA
SORLANDEKO ZUZENDARIA

“Erosle potentzialari berea den hizkuntzan hitz egiten diogu eta, horrela, emaitzak askoz hobeak dira”

Zerbitzu osoko komunikazio agentzia da Sorland. Abadiñon sortu zen, Zarautzen bulegoa zabaldu berri dute eta Euskal Herri osorako zerbitzua eskaintzen dute, euskaratik eta euskaraz. Bai Euskarari komunitatearen parte dira Ziurtagiria sortu zenetik eta Bai Euskarari Saria jaso dute aurten.

Bai Euskarari Saria jaso duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Poza eta esker ona sentitzen dugu. Bai Euskarari aitzindaria izan da bere arloan eta guri ere, neurri batean, aitzindari izatea egokitu zaigu. Zerbitzu osoko agentzien artean lehenengotarikoak izan ginen euskaraz zerbitzu osoa ematen. Eta bidea lehenengoz urratzen duzunean aurkitzen dira oztupoak bidean. Bai Euskarari Elkar-teak ibilbide hori errekonozitzeak poz handia ematen digu.

Ziurtagiria sortu zenetik bertatik zarete komunitatearen parte. Zerk bultzatu zintuzten ziurtagiria eskuratzerat?

Sorland, orduan Di-Da, kooperatiba mixto moduan sortu zen bere momentuan. Bazkide sortzaileak ziren Berbaro Elkartea eta hainbat langile euskaltzale. Beraz, berez-berez joan ginen ziurtagiriaren bila, lan munduan euskara bultzatzeko ere jaitzen Sorland.

Horrela, enpresa munduak euskaraz lan egin dezakeela frogatzera datorren ziurtagiri bateko komunitateko kide izateak babesa ere eman zigun. Mediku “onaren” falazia oraindik ere

hor dago, arlo profesional guztietan eragiten du. Inportantea “medikua ona” izatea dela esaten digutenak gezurretan ari dira. Ez lukete mediku japoniar bat hartuko, munduko medikurik onena izan arren. Falazia horrek ezkututzen du medikuak gaztelania jakin behar duela derrigorrez, euren ustez ona izateko. Eta zeharka iradokitzen du mediku euskalduna ez dela hain ona. Edo euskara dakielako, abantaila batzuk ematen zaizkiola. Iruzur bat da. Eta gure arloan argi erakusten dugu. Euskal Herrian profesional onak daude marketinean eta komunikazioan, euskaraz ari direnak. Guk euskaraz sortzen duten profesionalekin lan egiten dugu eta euskal jendartearen eragina duten kanpainak egiten ditugu, euskaraz pentsatuta. Eta Euskal Herrian, komunikazioko profesional onak izateko, euskaraz sortzeko gaitasuna behar da. Gaztelaniaz edo frantsesez ere bai, baina hori egiten ere badakigu.

Zer eskaintzen diezue enpresei zein erakundeei?

Marka baten eragina handitzen edo hobetzen laguntzen dugu Sorlanden. Bai marka estrategia eginez, zein erakunde nortasuna sortuz,



webgune bat eginez edo-eta stand bat Alemanian muntatuta. Azken batean, markak laguntzen du ezagunago izaten, nabarmentasuna handitzen eta horrek, ondorioz, ekarriko du gehiago saltzea edo-eta prezio hobe batean saltzea.

Azkenengo urteetan, berriz, munduan aldaketa ikaragarriak ematen ari dira eta arin, gainera. Aldaketa-tara egokitzea beharrezkoa da. Erresilienteak izaten jakin behar dugu, bestela enpresen biziraupena bera zalantzan jar daiteke eta komunikazioak horretan asko laguntzen du. Komunikazioa elkarriketa ariketa bat da, erabaki proaktiboak hartzen laguntzen duen elkarriketa: entzun, hitz egin eta berriz entzun. Ur nahasietan galduta ibili beharrean, bidea bistaratzen eta ikusiak izaten laguntzen du komunikazioak.

Euskaraldia eta Durangoko Azoka bezalako marka ospetsuen atzean zuen lana dago. Zer sentitzen da zuk sortutako marka kalean ikusi eta jendeak harekin bat egiten duenean?

Harrotasuna. Poza. Euskaraldian 200.000 lagun inguruk parte hartzen du modu aktibo batean, eta Azokan 120.000 inguruk egiten du Durangorako peregrinazioa. Ikaragarria da. Eta horiekin moduan, berdin sentitzen gara Euskal Sagardoak salmentak igo dituela esaten digutenean, edo Ekolurra telebistan publizitatea egiten hasten denean, produktu ekologikoen salmentak hobetu egin direla ikusten dugunean.

Euskaraz egiten duzue lan eta euskaraz sortzen duzue. Uste duzu geroz eta gehiago baloratzen dutela bezeroek Euskal Herrian publizitatea euskaraz egitea? Batez ere, agian, historikoki euskara asko erabili ez den esparruetan, industrian, adibidez?

Industria guztiz eleanitza da. Oso modu naturalean bizi dira industriako profesionalak hainbat hizkuntzatan. Gainera, gaur egun lan mundura sartzen diren gazteek, denek dakite euskaraz. Beraz, enpresak gai izan beharko ginatke gazte horiei mundu euskaldun elea-

nitz batera harrera egiteko. Ez dago zailtasunik euskaraz lan egiteko. Ez behintzat gainditu ezin den zailtasunik. Erabakia hartu eta martxan jartzea bakarrik da. Gure hornitzaile guztiek eskaini ditzakete zerbitzuak euskaraz. Ez dira denak euskaldunak, baina zerbitzua denek eman dezakete euskaraz. Batzuk aukeratu egin ditugu, baina beste batzuen kasuan lortu dugu kontratazioak egiterakoan langile euskaldunak kontratatzea. Eragin egin dugu. Eta inon ez da arazorik egon. Denek lortu dute natural-natural. Euskaraz lan egitea posible dela argi dago. Horrenbestekoa da hegoaldeetik datorren bonbardeoa, azkenean barneratuta daukagula enpresako lan-hizkuntza euskara izatea zaila dela.

Eta gure sektorean, gainera, kon-tuan eduki behar dugu publizitatea lantzeko zenbat eta publiko segmentatuagoa landu, hobe dela. Eta hemen ere, euskaraz eta gaztelaniaz eta frantsesez lan egiteko gaitasuna edukita, emaitza askoz hobe da. Erosle potentzialari berea den hizkuntzan hitz egiten diogu eta, horrela, emaitzak askoz hobeak dira.

Zure ustez, zergatik baliatu behar dute enpresek euskara?

Enpresa asko ari dira talentua erakartzeko plangintzak egiten. Badakigu langile gazteek barneratuta dutela mugikortasuna; enpresaz aldatzeko jarrera dakarte. Beharbada, ez dutelako ikusten ziurtasun handirik bazterretan. Langileak enpresetan geratu eta formatzea nahi badugu, beraiekin batera hazi behar dira enpresak. Beraien hizkuntzan ere lan egin beharko dute; talentuari eustea erronka bat izango da.

Horrez gain, inbertsio handia egin dugu, gizarte bezala, gure gazteak euskalduntzeko eta, gero, enpresetan gaztelaniaz lan egiten jarriko ditugu? Enpresak, administrazioa

eta bestelako erakundeak gizarte-erronka inportanteetan norabide beretsuan joan beharko gara, ezta?

Adimen artifizialaren boom-ak eta batez ere ChatGPT eta Midjourney bezalako tresnekin batzuk zalantzan jartzen dute gaur egungo agentzien lana. Nola eskaini balio erantsia?

Guk egiten dugun lana ez da zalantzan jarriko. Adimen artifizialak erantzun estandarrak emango ditu, edozeinen eskura jarriko du oinarriko proposamen bat egitea. Baina oinarrizko horretatik bereiztu nahi duenak, erantzun estandarra baino gehiago nahi duenak, gizakiaren sormena baliatu beharko du, gerora ere.

Adimen artifizialak ez du asmatuko bezeroak zer behar duen. Lagunduko digu prozesuetan, esango digu zeintzuk diren joerak, erosketa egiteko jarrerak, iritzi eta aurreritziak eta, ezagutza horrekin, bezeroaren beharrianak ondo ulertuta, ekin-tzak eta zereginak proposatuko ditugu. Prozesu horiek arindu egingo ditu, baita merketu ere, baina zer egin behar den ez du erabakiko.

Denok geratzen gara ahozabalik al-daketa berriekin, ezta? Metabertsoa, ChatGPT eta antzekoek bat-bateko arrakasta lortzen dute, baina bizi-tzako gauzarik garrantzitsuenek ber-din jarraitzen dute.

Nola eskaini balio erantsia? Tresna eta baliabide horiek ezagututa eta prozesuak erraztuta, baina bezeroaren ondoan bidean laguntzen geu egonda.

“Euskal Herrian, komunikazioko profesional onak izateko, euskaraz sortzeko gaitasuna eduki behar da”



Urte asko daramatzazue komunikazio arloan lanean. Nola aldatu da urte hauetan guztietan zuen lana? Zer nabarmenduko zenuke?

Dena doa oso arin eta ez dago ia astirik egokitzen joateko. Eta gainera tartean krisiak, gerrak eta pandemiak kudeatzeko gai izan behar gara. Pentsa pandemiarekin bakarrik zer nolako iraultza digitala eman den agentzietan!

Uste dut gure indargune handiena horixe dela: egoera berrietara egokitzeko gaitasuna eta gizartearen oraingo eta etorkizuneko erronkak aurreikustea eta horiei erantzuten jakitea. Aurreiritziak albo batera utzi eta dagoen egoera dagoelarik ere, zerbitzua pentsamendu kreatibo

eta positibo batekin ematea. Hortxe asmatu du Sorlandek urtetan.

Horrez gain, esango nuke gaur egungo gazteak oso prestatuak eta espezializatuak datozela lan mundura. Hezkuntza arloan dagoen gauza asko ikasi behar horrek, hiperaktibismo horrek, oso gertura begiratzaren jarri ditu gazteak. Lagundu egin behar diegu espezializazio horretatik burua jaso eta inguruan gertatzen dena ondo ulertzen.

Zeintzuk dira sektorearen etorkizuneko erronkak? Nola irudikatzen duzu epe ertainean sektorea?

Sektoreak zailtasunak izango ditu jendearen iritziak interpretatzeko: gizartean krispazio handia dago, aldaketa klimatikoak urduritasuna sortzen du, kapitalismoak gogor

eusten dio, ezberdintasun sozialak handitzen doaz eta ezin du gauza onik ekarri. Baina justu horrelako egoeretan behar da jende kreatiboa, positiboa, arazoei konponbideekin erantzuten diona eta hortxe dago gure sektorea. Aukera handia daukagu erakunde askori laguntzeko inpaktua handitzen, salmentak bultzatzen, mezuak zabaltzen, emaitzak hobetzen eta krisian ez erotzen.

“Metabertsoa, ChatGPT eta antzekoek bat-bateko arrakasta lortzen dute, baina bizitzako gauzarik garrantzitsuenek berdin jarraitzen dute.”

JOXEMARI TELLERIA LEZETA
MARGOLARIA ETA ILUSTRATZAILEA

Garaikurraren atzeko artista

Bai Euskarari Sarietako protagonista nagusiak dira urtero aitortza jasotzen duten hiru entitateak, zalantzarik gabe, baina bada beste protagonista bat ere, 2009an lehen sariak banatu zirenetik ixil-ixilik ekitaldian izan ohi dena: Bai Euskarari sarien garaikurra. Bai Euskarari Elkarrekin urte hartan zuen iruditik abiatuta egin zuen garaikurraren diseinua Joxemari Telleria Lezetak, eta dagoeneko sari-banaketako ezinbesteko ikur bihurtu da.

Urtero jasotzen du Telleriak hiru garaikur egiteko enkargua. Esan genezake saridunak zein diren jakiten lehenengotarikoa izaten dela, baina

sekretua ondo gordetzen du. Diseinua ordenagailuz prestatu eta laser bidez burnia mozten duten Goierriko (Gipuzkoa) enpresa batera bidaltzen du. Behin garaikurrak etxean dituela, pintura laranjaz margotu, izenak jarri eta prest ditu sari-banaketarako.

Bai Euskarari Sarietako garaikurrak gain, beste zenbait ere egin izan ditu: Iparra-Hegoa kultur ekimenerako, Euskal Herriko Dantza Txapelketarako eta beste hainbat ekimenetarako. Enkargua egin, diseinua proposatu, laser bidez moztu eta margotu. Garai batean eskuz egiten ziren horrelako prozesuak, baina gaur egun ordenagailuz diseinatu eta makinak

egiten ditu eskulturak. “Ni ere aritzen naiz ordenagailuz diseinuak egiten, baina gazteak trebeagoak dira horretan”, dio Telleriak.

Ilustrazio eta margolanak

Izan ere, ilustrazio lan ugari egingakoa da Telleria eta 80ko hamarkada inguruan eskuz egiten zituen denak. Esaterako, Telleriarenak dira Jakinek 1976an argitaratutako Axularren Gero-ren ilustrazio guztiak. Geroago etorri ziren Elkarrek argitaratutako Asterix eta Obelix-en eta Tintin-en komikiak ilustratzeko lanak. Joxan Ormazabalek testua pasa eta bere eskuz idatzitakoak dira komiki horietako testu guztiak. Orain ordenagailuz egiten dituzte lan horiek.

Margolanak ere ugari egiten ditu, estilo askotakoak: figuratiboak, abstraktoak eta azkenaldian hiperrealismoko margolanak egiten ari da, zuhaitzak, landareak eta paisaiak argazkiak balira bezala margotuz. “Naturatik hartu gaiak eta horiek lantzen ditut”, aipatu digu.

Gaztetatik datorkio artista sena Joxemari Telleria Lezetari (Segura, 1943). 15 urte ingururekin hasi zen margolanak egiten eta harrezkero ez da gelditu: “Lehenengo delineatzaile aritu nintzen CAF-en, gero Beasaingo Lizeoan plastika eta musika irakasle, eta gero, nire kontura”.

Erakusketa ugari egin ditu, besteak beste, Bilbon, Donostian, Gasteizen, Iruñean, Madrilan eta Bartzelonan. Sarietan nabarmentzekoa da Bilboko





I. Vasconavarro Pintura Lehiaketako lehen saria jaso zuela 1974an. Bere lan ugari dituzte Arabako Arte Ederren Museoak eta bilduma pribatu ugariak.

Musika eta pintura uztartuz

Margolari eta ilustratzaile izateaz gain, musikaria ere bada Telleria. Txistularia da eta urte askoz jardun du Euskal Herriko Dantza Txapelketan dantzarietako fandangoa jotzen; zenbait fandango ere konposatu ditu, gainera. Zeraingo abesbatzako

zuzendari eta Zeraingo zein Segurako elizetako organo-jole ere bada.

Musika eta pintura bateratuz egindako margolan seriea bereziki kuttuna du Telleriak: "Musika margotu izan da musika entzun eta sentitu dutenarekin, nik partitura hartu eta partiturako nota bakoitzari kolore bat eman nien, eskala musikalean dauden bezala koloreetan erlazionatu eta horrela margotu nituen".

Dagoeneko enkargu gutxi izaten ditu Telleriak, baina ez dago geldia. Duela 10 bat urte Zeraingo plazan egindako aizkora-apustu baten mar-

golana bukatzen ari da: "Urte asko daramatzat lan honekin eta azken ukituak ematen ari naiz, batez ere jendearen aurpegiak hobetzen". Margolan hau bukatutakoan Zeraingo burdin meategiekin lotutako margolana egiteko asmoa du. Izan ere, XII. mendetik XX. erdialdera arte burdina ustiatzeko meategiak martxan egon ziren Zerainen.

Eskultura-gilea, margolaria, ilustratzailea, musikaria... artista konpletoa dugu Joxemari Telleria. Bai Euskarari Sarien garaikurra urte askoan egitea opa diogu!

Udalbiltzak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu du

Euskal Herri burujabea eraikitzeko bidean, Udalbiltza Partzuergoak Euskal Herriko garapen eta barne kohesioa sustatzea du xede nagusi. Horretarako, ezinbestekotzat ditu euskara erdigunean kokatzea eta mugaz gaindiko harreman zein proiektuetan euskararen erabilera areagotzeko eragitea.

Udalbiltzak zerbitzua euskaraz ematen duela ziurtatzen du lortu berri duen Bai Euskarari Ziurtagiriak. Baina, ziurtagiriaz gain, sinistuta gaude euskara eremu berrietara eramateko elkarlanean lehen pausoa besterik ez dela izango. Horregatik, Bai Euskarari Elkartearentzat pozgarria da Udalbiltza bezalako erakunde batek ziurtagiridunen komunitatearekin bat egin izana.



23 entitate berri

Urtarriletik maiatzera bitartean 23 entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, enpresan euskara erabili eta sustatzeko helburuarekin. Zorionak eta ongi etorri Bai Euskarari komunitatera!

ACM Arkitektura (Gipuzkoa)

Euskararen bidean

Alaboca Catering (Araba)

Euskararen bidean

APARTE denda-tailerra (Gipuzkoa)

Zerbitzua euskaraz

AZK Taldea (Gipuzkoa)

Zerbitzua euskaraz

BAI&BY Bilbo (Bizkaia)

Zerbitzua euskaraz

BAI&BY Donostia (Gipuzkoa)

Zerbitzua euskaraz

BAI&BY Gasteiz (Araba)

Zerbitzua euskaraz

BAI&BY Iruñea (Nafarroa)

Zerbitzua euskaraz

BAI&BY ON LINE, S.L (Bizkaia)

Zerbitzua euskaraz

Behin betiko S.L.U (Bizkaia)

Zerbitzua euskaraz

Belesar gimnasia kluba (Araba)

Euskararen bidean

Dibulitoon Studio (Gipuzkoa)

Zerbitzua euskaraz

Didaktiker S.A (Bizkaia)

Zerbitzua euskaraz

Eragin Fabrika (Nafarroa Behera)

Euskararen bidean

Espigon Berri (Gipuzkoa)

Euskararen bidean

Hormigones Vascos S.A. (Bizkaia)

Euskararen bidean

Ibilki (Lapurdi)

Euskararen bidean

Inguru Abentura (Bizkaia)

Zerbitzua euskaraz

IT lanak (Lapurdi)

Zerbitzua eta lana euskaraz

Itsaso Bakedano (Nafarroa)

Zerbitzua eta lana euskaraz

Odon de Apraiz Ikastola (Araba)

Zerbitzua eta lana euskaraz

Txanka (Nafarroa Behera)

Euskararen bidean

Udalbiltza (Gipuzkoa)

Zerbitzua euskaraz

Ikusi ziurtagiridun guztien mapa:



Mugaz gaindiko lan-harremanak aztergai izan genituen Enpresarean Foroan

Maiatzaren 24an Irungo Ficoban elkartu zen Bai Euskarari Elkartek sustatutako Enpresarean Foroa, **“Mugaz gaindiko lan-harremanak Euskal Herrian”** gaiaren inguruan hausnartzeko eta enpresa zein profesional ezberdinen esperientziak entzun eta partekatzeko.

Marie Heguy-Urain, «Euroeskualdeko hiritartasuna» proiektuen kudeatzailea, lankidetzak sustatzeko dauden baliabide publikoez aritu zen; Beñat Irasuegi Ibarra, Talaios kooperatibako kideak Translanekin proiektua aurkeztu zuen; enpresen arteko solasaldia izan zen bukatzeko, Onintza Agirrek (Latzondo tresnak eta Berlatz) eta Pierre Bastresek (Antola Cooperation) parte hartu zuten, Maite Reizabal Arregui EnpresaBIDEAko erredakzio buruak gidatuta.



Enpresarean Foroko
hitzaldiak eta
solasaldiak ikusteko:



Ziurtagiriaren inguruko ohiko galderak, bideo piluletan

Elkarteari buruzko Ohiko Galderak biltzen ari gara baieuskarari.eus webgunean, Bai Euskarari Elkarteko aholkularien bideo pilulekin osaturik.

Galdera hauei erantzun diegu bideoz:

- Zein da Bai Euskarari Elkartearen helburua?
- Zer da Bai Euskarari ziurtagiria?
- Zer adierazten du Bai Euskarari ziurtagiria izateak?
- Zeren arabera erabakitzen da entitate/enpresa bati dagokion maila?

Hemen ikus ditzakezue
orain artekoak eta gero
etorriko direnak:



mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

Neurri handiko mekanizazioa

Ezagu politoia, 21
BERRANI
T. 943 55 25 12 - 16
T. 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Lan munduan euskararen erabilera areagotzeko eragiten



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus
f t @ in v

Espazio berriak esploratzea

Bai Euskarari Elkarteak espazio berriak esploratzea gustatzen zaigu, euskararentzat bide berriak irekitzen dituela sinesten dugulako.

Konexioak bultzatzea

Konexioak bultzatzen ditugu eragileen artean, enpresa eta profesionalen interesekoak diren gaiak euskaraz eskainiz.

Euskaraz eroso aritzea

Euskaraz eroso aritzeko espazio, proiektu eta tresnak eskaintzen ditugu lan mundua osatzen duten aktore guztiei zuzenduta.

Ezagutu
Bai Euskarari
Elkartearen
proiektuak



Bai Euskarari ziurtagiria,
Lansarean lan-ataria, Enpresarean,
Elkarrengandik ikasiz solasaldiak, etab.